

**BILBOKO AUTOTAXI ZERBITZURAKO IBILGAILU ELEKTRIKO BERRIAK
EROSTEKO DIRU-LAGUNTZETARAKO DEIALDIA . 2018**

1. ARTIKULUA. XEDEA

Mugikortasun eta Jasangarritasun Sailak, Garraioen esparruaren barruan, "Bilboko autotaxi zerbitzurako ibilgailu elektriko berriak erosteko" diru-laguntza ildorako deialdia egin du.

Deialdiaren xedea da diru-laguntzetarako deialdia egitea, Bilboko taxi zerbitzuko errekontza-motorra duten ibilgailuak edo ibilgailu elektrikoak ordezkatzeko ibilgailu elektriko berriak erosteko, baldin eta kontzeptu honengatik Udalaren beste diru-laguntzarik jaso ez badute; era horretan Bilboko airearen kalitatea hobetzen, eta kutsadura akustikoa, berotegi efektuko gasen isurketak eta energia kontsumoa txikitzen lagundu dezaten.

2. ARTIKULUA. ERREGIMEN JURIDIKOA

Honako lege eta arau hauen bitartez arautuko dira deialdian jarritako diru-laguntzak: azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Legearen bitartez, hura garatzen duen Araudiaren bitartez –uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bitartez onartua— eta Bilboko Udalak eta zuzenbide publikoko barneko organismoek eta erakundeek deitutako diru-laguntzak emateko Oinarri arautzailearen bitartez. Azken horiek 2016ko ekainaren 30eko Udalbatzaren Akordioaren ondoriozko Ordenantza orokorretan onartu dira, eta 2016ko uztailaren 20ko 138. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu.

3. ARTIKULUA. ONURADUNAK

- 1.- Bilboko Udalaren taxi baimena duten pertsona fisikoek diru-laguntza eskatu ahal izango dute, baldin eta diru-laguntza eskaeraren xede den ibilgailuak baimen horri atxikitako ibilgailua ordeztuko badu.
- 2.- Bilboko taxi elkarteak, diru-laguntzaren xede den ibilgailua erabiliko bada Bilboko taxi baimenen ordezkapen ibilgailu gisa.
- 3.- Ezingo dira onuradun izan Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. paragrafoetan ezarritako debekuren bat duten pertsona fisikoak edo juridikoak.
- 4.- Deialdi honetan aurreikusitako laguntza ekonomikoak jaso ahal izateko, eskatzaileek egunean eduki beharko dituzte gaur egun taxi baimenari atxikita dagoen ibilgailuaren urteko ohiko azterketak.
- 5.- Ezingo dituzte laguntza hauek jaso faktura 2017ko irailaren 4a baino lehenagokoa duten eskaerek.
- 6.- Ibilgailu elektrikoak ordezkatzeko eskarien aurretik, lehentasuna izango dute errekontza-motorra duten ibilgailuak ordezkatzeko eskariak. Ildo horretan, ibilgailu elektrikoak ordezkatzeko eskariak ez dira erabakiko errekontza-motordun ibilgailuen eskariak tramitatu barik dauden bitartean.

4. ARTIKULUA. IBILGAILUEN BALDINTZAK ETA BETEBEHARRAK

1.- Diru-laguntzen xede diren ibilgailuek elektriko puruak eta berriak izan beharko dute, eta taxi baimenaren titularrek 2017ko irailaren 4tik 2018ko abenduaren 31ra bitartean erosi edo erosteko asmoa eduki behar dute.

5. ARTIKULUA. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Diru-laguntzen onuradunek azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte.

Diru-laguntza emateko ebazpenaren aurretik, erakunde onuradunak bereziki ziurtatu behar du zergak ordaintzen dituela eta Gizarte Segurantzarekiko obligazioak betetzen dituela.

Ez da diru-laguntzaren ordainketa gauzatuko, baldin eta hura izapidetzeko datan egunean ez badago aipatutako betebehar horiekin eta Gizarte Segurantzarekin.

Deialdi honen onuradunek honako betebeharrak bete behar dituzte:

- Diru-laguntzaren helburu den ibilgailua hura erosi eta hurrengo hil bietan laguntza eskatu den lizentziari atxikitzea.
- Ibilgailu elektrikoa gutxienez 4 (lau) urtez edukitzea Bilboko taxi zerbitzuan, atxiki zenetik zenbatzen hasita. Gutxieneko epe hori amaitu aurretik kentzen bada ibilgailua zerbitzutik, Udalari itzuli beharko dio aurreko paragrafoan zehaztutako gutxieneko epea bete bitarteko zati proportzionala, salbuetsita gelditzen delarik automobilaren transmisioa Bilboko beste taxi baimen baten titular bati egiten bazaio eta automobilak zerbitzua ematen jarraituko badu gutxieneko epe hori bete bitartean. Edonola ere, gutxieneko epe hori betetzen ez bada, diru-laguntzaren onuradunaren erantzukizuna izango da diru-laguntzaren zati proportzionala itzultzea.

6. ARTIKULUA. AURREKONTU KREDITUAK

1.- Deialdiko diru-laguntzak Bilboko Udalak 2018ko ekitaldirako onartutako aurrekontuaren 61000 44110 77199, PEP 2018/00155 diru-sailaren kargura finantzatuko dira.

2.- Deialdi honetarako zenbatekoa EHUN ETA HAMAR MILA EUROKOA (110.000) da.

3.- Diru-kopuru hori amaitutakoan, eten egingo dira diru-laguntzak harik eta aurrekontuan beste dotazio bat baimendu arte. Hori Bilboko Udalaren webgunean jakinaraziko da.

4.- Aurrekontuko dotazioa handitu egin daiteke, aurkeztutako eskabideak ikusita, beste deialdirik egin barik.

7. ARTIKULUA. LAGUNTZA EKONOMIKOAK

1.- Laguntza honen zenbatekoa hamar mila (10.000) eurokoa izango da eskaera bakoitzeko.

8. ARTIKULUA. BATERAGARRITASUNA BESTE DIRU-LAGUNTZA BATZUEKIN

1.- Diru-laguntza hauek bateragarriak dira helburu bererako beste diru-laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin, edozein dela ere horiek ematen dituen Administrazioa edo erakunde publiko edo pribatua, nazionala, Europar Batasuneko edo nazioartekoa.

2.- Nolanahi ere, modu isolatuan edo beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera, esleitutako diru-laguntzaren zenbatekoak ezin izango du inolaz ere diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu.

3.- Bateragarriak dira ibilgailu bererako diru-laguntza biak, alegia, Sailak ibilgailu elektrikoa eskuratzeko diru-laguntza eta ibilgailua egokitzeko deitutako diru-laguntza, biak eskuratu daitezke.

4.- Pertsona edo erakunde onuradunek udal ebazpenaren ondoren proiektu bererako beste administrazio publiko batzuetatik diru-laguntzak jasotzen badituzte, Bilboko Udalari derrigorrean jakinarazi beharko diote, hilabete baino lehenago dagokion jakinarazpena jasotzen dutenetik.

9. ARTIKULUA. ESKABIDEAK

Deialdi honi buruzko informazio eta dokumentazio guztia eskura egongo da udalaren webgunean (www.bilbao.eus); Bilboko Udalaren Herritarren Arretarako Bulegoan, San Agustin Eraikinean; Barrutiko Udal Bulegoetan, ohiko ordutegietan; Bilboko Udalaren gardentasun atarian eta Diru-laguntzen Datu-base Nazionalan.

Diru-laguntzak eskuratu nahi dituzten pertsona fisikoek edo juridikoek eskabidea (I. eranskina) aurkeztu behar dute agiri hauekin batera:

- a) Eskatzailearen NANaren kopia edo, Elkartea izanez gero, IFKaren kopia.
- b) Ibilgailuaren aurrekontua edo faktura.
- c) Erantzukizuna hartzeko aitortpena, diru-laguntzak eskuratzeko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua ezartzen dituen debekuetako bat ere ez duela adierazten duena. (II. eranskina).
- d) Ibilgailua Bilboko autotaxi zerbitzuari gutxienez 4 (lau) urtez atxikiko zaiola adierazten duen erantzukizunpeko aitortpena. (II. eranskina).
- e) Borondatezko baimena Udalaren alde, hark bildu ditzan Gizarte Segurantzari eta zergei dagozkien betebeharreri buruzko datuak. II. Eranskina.
- f) Aurreko atalean aurreikusitako baimena ematen ez bada edo Udalak ezin baditu ziurtagiriak lortu, orduan zerga-betebeharreri eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharreri dagokienez egunean dagoela egiaztatzen duten ziurtagiriak aurkeztu behar dira, hurrenez hurren, eskumena duen Zerga Administrazioak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak urte horretan eginak.
- g) "Hartzekodunen fitxa" behar bezala beteta, eta bankuko kontuaren titulartasuna justifikatzen duen agiria. (III. Eranskina).
- h) Eskatutako laguntzen erantzukizunpeko aitortpena. (IV. eranskina)

2.- Eskaerak Bilboko Udalaren Erregistroan aurkez daitezke, edo, bestela, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako beste edozein erataria.

3.- Eskaerak aurkezteko epea deialdiaren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko egunean hasiko da. Nolanahi ere, eta aurrekonturik dagoen kontuan hartu gabe, eskaerak aurkezteko epea 2018ko irailaren 3an amaituko da. Diru-

laguntzen deialdiari buruzko Informazio guztia dago Bilboko Udalaren web-orrian :
http://www.bilbao.eus/Mugikortasun_eta_Jasangarritasun

10. ARTIKULUA. LAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA ETA EBAZPENA

1.- Diru-laguntzearako deialdi honetarako gordetako aurrekontu-kreditua deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen direla ziurtatzen duten pertsona fisiko edo juridikoei banatuko zaie, 7. artikuluan ezarritako laguntzen zenbatekoen arabera, eta aukera hori zabalik egongo da aurrekontuaren zuzkidura agortu bitartean.

Diru-laguntzak emateko erabakian lehenetsun ordenari begiratuko zaio, eta ordena hori, aldi berean, eskaera deialdian adierazitako dokumentu guztiekin aurkezten den dataren eta orduaren arabera izango da, edo, eskatutako agiriren bat faltatuz gero, hura aurkeztutako dataren arabera.

2.- Prozedura bideratzeko eskumena duen organoa Mugikortasun eta Jasangarritasun Saileko Garraioen Zuzendariordeztzari lotutako langile teknikoek osatua izango da.

Organo izapidegile horrek ebazpen proposamena egingo du, ziurtatu ondoren:

- Garraio Zuzendariordeztzaren udal-ikuskaritzak txosten bat igorri duela, zeinetan adieraziko den diruz lagunduko den ibilgailuak ez duela eragozpenik taxi egokitu gisa Bilboko taxi zerbitzuaren barruan ibiltzeko.
- Onuradunak eskatutako dokumentazio guztia aurkeztu duela.
- Onuraduna egunean dagoela bere zerga-betebeharrei eta Gizarte Segurantzaren alorrekoiei dagokienez, eta ez duela zerga-izaerako inolako zigorrik edo zorrik Udal honekin epe exekutiboan, salbu eta atzeratuta badago, zatikatuta badago edo betearazpena etena badago.

3.- Gobernu Batzordeak edo berak eskuordetutakoak ebatziko du prozedura.

Ebazteko eta interesdunei jakinarazteko gehienezko epea hiru hilabetekoa izango da, eskaera aurkezten denetik, edo dokumentuak zuzentzeko eskatu bada, horiek zuzenduta aurkezten direnetik zenbatzen hasita.

Ebazteko eta ebazpena jakinarazteko gehienezko epea igaro ondoren, eskaera ezetsi ahal izango da, administrazio isiltasuna dela-eta.

Eskatutako diru-laguntza emateko edo ukatzeko ebazpenarekin amaitzen da bide administratiboa.

Horren kontra aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da ebazpena eman duen organoaren aurrean, hilabeteko epean jakinarazpena egiten denetik zenbatzen hasita, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, dagokion administrazioarekiko auzi - epaitegiaren aurrean, bi hilabeteko epean jakinarazpena egiten denetik zenbatzen hasita.

4.- Prozedura izapidetzeko eta ebazteko egintzak banakako jakinarazpenaren bidez jakinaraziko dira.

5.- Deialdi honetan onartu diren diru-laguntzen guztirako kopurua txikiagoa bada diru-laguntza hauetarako jarritako kopurua baino, orduan soberakina Bilboko taxi zerbitzuko ibilgailuak egokitzeko diru-laguntzen deialdiari batuko zaio.

11. ARTIKULUA. DIRU-LAGUNTZAREN ORDAINKETA

Mugikortasun eta Jasangarritasun Sailaren Ordezkaritzak emango du onartutako diru-laguntza ordaintzeko ebazpena, eta onuradunari jakinaraziko zaio; ordainketa egiteko, Udal honetako Hartzekodunen Erregistroan bere izenean agertzen den kontu korrontean sartuko da dirua.

12. ARTIKULUA. JUSTIFIKAZIOA

Ibilgailua 2019ko urtarrilaren 1erako eskuratuta egon behar da eta horren justifikazioa, gehienez ere, erosketaren fakturaren egunetik, edota, ibilgailua adierazitako data baino lehenago eskuratu bada, diru-laguntza eman zaiola ziurtatzen duen jakinarazpenaren egunetik, bi hilabeteren barruan aurkeztu behar da.

Udalak ofizioz egiaztatuko du udal-ikuskaritzak gaitzat hartu duela taxi zerbitzuari atxikitzeko; ezinbesteko baldintza da hori diru-laguntza justifikatzeko.

Diru-laguntzaren justifikazioa:

- Ibilgailuen erosketako jatorrizko faktura eskatzailearen izenean, 2017ko irailaren 2tik 2018ko abenduaren 31ra bitartekoa, fakturaren gutzirakoaren ordainagiriekin batera. Bertan hauek zehaztuko dira:
 - o Matrikula edo bastidore zenbakia.
 - o Ibilgailuaren marka.
 - o Modeloa.
- IATari dagokion fitxa teknikoaren fotokopia.
- Zirkulazio baimenaren fotokopia.
- Eskatutako laguntzen erantzukizunpeko aitortpena. (IV. eranskina)

13. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK

Diruz lagun daitezkeen gastutzat hartuko dira ibilgailua erosteko gastuak, BEZa salbu, azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 31.8 artikuluan adierazitakoaren arabera.

14. ARTIKULUA. OBLIGAZIOAK EZ BETETZEAREN ONDORIOZKO ERANTZUKIZUNAK

Deialdi honetan zehaztutako betebeharrak betetzen ez badira, edo bertan eskatzen diren datuak eta eskakizunak faltsutzen edo ezkututzen badira, diru-laguntzaren zenbatekoa itzuli beharko da, dagozkion atzerapen interesak barne, diru-laguntza jasotzen den unetik aurrera.

15. ARTIKULUA. EMANDAKO DIRU LAGUNTZEN PUBLIZITATEA

Urtea bukatu aurretik, emandako eta ukatutako diru-laguntza guztiak argitaratuko dira udalaren webgunean.

Era berean, diru-laguntzen publizitatea egingo da Diru-laguntzen Datu-base Nazionalaren bitartez, Diru-laguntzen Lege Orokorrak ezarritakoaren arabera.

Bilbon, 2018ko apirilaren 12an
Mugikortasun eta Jasangarritasun Saila.